

IVAP-EN DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA.

2022

1.- SARRERA

1.A.- Aldez aurretiko gogoetak

Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak (aurrerantzean, DLO), zioen azalpenean oro har eta 8. artikuluan zehazki, xedatzen du administrazio publikoetako organoek eta diru-laguntzak ematen dituzten erakunde orok Diru-laguntzen Plan Estrategikoa (aurrerantzean, DPE) egin behar dutela aurrez. Bertan zehaztuko dute bera aplikatuta zer helburu eta zer ondorio lortu nahi diren, baita horiek lortzeko zer epe, kostu eta finantzabide beharko diren ere. Planak aurrekontu-egonkortasunerako helburuak beteko ditu, eta publizitate, gardentasun, lehia, objektibotasun, berdintasun eta bazterkeriarik ezaren printzipioak bermatuko ditu, bai eta helburuen efikazia eta baliabide publikoak efizientziaz esleitzea eta erabiltzea ere.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomoa denez, Diru-laguntzen Plan Estrategiko hau egin du, DLOn ezarritakoari jarraikiz.

1.B.- Izaera juridikoa

DPE kudeaketa-tresna bat da, programatikoa, eta ez da arau-mailakoa. Beraz, ez dakar eskubide edo betebeharririk onuradun izan daitezkeen horientzat, eta berori onartzeak ez dakar eskubide edo betebeharririk Administrazioarentzat. Eraginkorra izateko hainbat diru-laguntza ildo jarriko dira martxan, betiere besteak beste ekitaldi bakoitzean dagoen aurrekontu-erabilgarritasunari erreparatuta.

Era berean, plan hau IVAPen politika antolatzeako tresna bat da; IVAPen 2021-2024 Plan Estrategikoan txertatzen da –aurrerago aipatuko dugu– eta, diru-laguntzen bidez, gizartearen intereserako edo gizarteak erabiltzeko den jarduera bat sustatzea edo helburu publikoren bat lortzeko

bultzada ematea du xede. Alde horretatik, lortu nahi diren interes publikoak eta planaren indarraldian eskuragarri izango diren baliabideak aztertu direla aintzat hartuta, IVAPek, efikazia eta efizientzia mailak handitzen direla bermatzeko, beretzat gordetzen du DPEak barne hartzen dituen diru-laguntzen programetan komenigarri jotzen dituen aldaketak egiteko eskubidea, hala justifikatzen badute DPEaren urteroko berrikusketek, diru-laguntzen programa bakoitzean ezarritako adierazleak bete diren egiaztatzeko azterketek edo bestelakoek.

Bestalde, ikusten bada plana sustatu duen erakunde autonomoak eginiko jarraipen-txostenen eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak igorritako txostenen emaitzetan diru-laguntza batzuk ez direla iritsi aurreikusitako helburuen lorpen-mailara edota inbertitutako baliabideei dagokien mailara, aldatu eta horien ordeaz eraginkorragoak eta efizienteagoak diren beste batzuk ezarriko dira, edo, hala badagokio, kendu egingo dira.

1.C.- Alderdi orokorrak

Diru-laguntzei buruzko erregulazio juridikoak, baita administrazio publikoei buruzkoak ere, **jarduketa-printzipio orokor** batzuk ezartzen ditu; printzipio horiek **Plan Estrategikoaren funtsezko osagaiak** dira, eta haiek gidatu behar dute diru-laguntzen kudeaketa.

- a) **Publizitatea eta lehia**, lehia eta funts publikoen berdintasunezko banaketa bermatuko dituen aurretiko deialdi baten bitartez, edo **zuzeneko diru-laguntza baten bitartez**, zeinarentzat, aplikagarria den arauan ezarritakoaren arabera, aurrekontua nahikoa egongo den erabilgarri aurrez.
- b) **Objektibotasuna**, funts publikoak esleitzeko prozesuan.
- c) **Berdintasuna eta bazterkeriarik eza**, herritarren, sektoreen eta pertsona multzoen artean.
- d) **Gardentasuna**, baliabide publikoak esleitzeko prozesuan, hala emateko prozesuan nola emaitzak argitaratzekoan.
- e) **Helburuak betetzeko efikazia**, emandako diru-laguntzen jarraipen eta kontrolerako prozedura bat ezarrita.
- f) **Esleipena eta baliabide publikoen erabilera egiteko efizientzia**, diru-laguntzak baloratzearen eta esleipenak proiekturik efizienteenei egitearen bitartez.

Printzipio horiek guztiak IVAPen diru-laguntza ildo eta programa guztiei aplikagarriak zaizkie.

2.- ESPARRU SUBJEKTIBOA ETA DENBORAZKOA

DPE honek barne hartzen ditu IVAPek Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Araubide Juridikoari buruzko uztailaren 27ko 16/1983 Legeak aitortzen dion eskumenaren bitartez kudeatzen dituen diru-laguntzak; lege haren arabera, Ogasun eta Herri Administrazio Sailera (gaur egun uler bedi Gobernantza Publikoa eta Autogobernu Sailera) atxikitako administrazio izaerako erakunde autonomo bat da IVAP.

16/1983 Legearen arabera, honako hauek dira IVAPen helburuak:

- EAEko Administrazio Orokorreko langileak prestatzea, eta gainerako euskal administrazio publikoekin lankidetzan jardutea, beren langileak prestatzeko.
- Euskararen Erabilera Arauzkutzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean agintzen dena betez, euskara Administrazio Publikoan sarraraztea, hedatzea, erabiltzea eta arauzkotzea, baita administrazio-hizkera zehaztea ere.
- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zerbitzura diharduten langileen hizkuntz gaitasuna indartzea, antolatzea eta ebaluatzea, betiere funtzio publikoko legerian esaten denaz bat.
- Administrazio publikoen eta zuzenbide publikoaren funtzionamenduaren eta eraginkortasunaren inguruan, ikerketak eta azterlanak egitea, aholkularitza ematea, dokumentazioa lantzea, informazioa zabaltzea eta argitalpenak egiteko jarduerak aurrera eramatea eta bultzatzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoak eta Euskadiko administrazio publikoek lege, finantza, ekonomia, gizarte eta estatistika arloan edo beste edozein arlotan dituzten berezitasunak ikertu, irakatsi eta ezagutzera emateko jarduerak aurrera eramatea eta bultzatzea.

Era berean, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura eta betekizunak arautzen dituen maiatzaren 4ko 133/2021 Dekretuak erakunde autonomo horren unitatekako egitura eta unitate haietako bakoitzari erakundearen helburuak lortzeko dagozkion betekizunak ezartzen ditu.

DPEa estu lotzen zaio IVAPen 2021-2024 Plan Estrategikoari; haren atal bat da, IVAPek kudeatzen dituen diru-laguntza publikoen arlo zehatzari dagokiona. Horrela, bada, diru-laguntzei lotutako IVAPen jarduna erakundeak aldi horretarako ezarriak dituen lan-lerro eta helburu estrategikoen artean

txertatu behar da, eta indarrean dagoen Plan Estrategikoak aplikagarria den aldirako zehazten dituen misioari, ikuskerari eta balioei erantzun behar die.

IVAPen 2021-2024 aldirako Plan Estrategikoa bost lan-lerroen inguruan dago egituratuta:

- L1 Erreferente publikoa**
- L2 Erakunde eraldatzailea**
- L3 Pertsonak oinarri**
- L4 Bezeroak helburu**
- L5 Gizarteari begira**

Erronka horiek hainbat helburu estrategikoren bitartez bideratzen dira; horiekin bat egin behar du IVAPen jardun osoak estrategia-aldian, eta haietan oinarritzen dira Diru-laguntzen Plan honetan jasotzen diren diru-laguntzen ildoak. Hori dela eta, 2021-2024 PEari erreferentzia egingo zaio haietako bakoitzean.

Denborari dagokionez, DLOaren Erregelamendua onartu zuen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 11.4 artikulua ezartzen du DPEak hiru urteko indarraldirako aurreikuspenak jasoko dituela, nahiz eta arau hori ez den oinarritzkoa.

Alderdi horri dagokionez, komenigarria ikusten da DPE honen indarraldia IVAPen Plan Estrategikoaren indarraldiarekin bat egin dezan (2021-2024) eta ondoren lau urteko indarraldia bateratu ahal izateko bi planetan, erakunde baten diru-laguntzen plan estrategikoa plan estrategiko osoaren parte izan behar denez; IVAPen kasuan, gainera, haren plan estrategikoek Legebiltzarreko legealdiekin eta Eusko Jaurlaritzaren ondoriozko agintaldiekin bat egiteko beharra adierazi da, plan horiek Eusko Jaurlaritzaren antolamendu-arlo zehatz bateko jardunbideak zehaztea xede dutenez. Horrelako planetarako hiru urteko indarraldia ezartzen duen DLOaren Erregelamenduaren 11.4 artikulua oinarritzkoa ez izateak aukera ematen du IVAPen DPEaren indarraldia egokien irizten diogun moduan moldatzeko.

3.- HELBURU OROKORRAK

Aurreko guztia aintzat hartuta, DPEa egitean, helburu orokor hauek lortu nahi dira:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikuluan jasotako lege-agindua betetzea; agindu horren bitartez, administrazio publikoen mendeko organo eta erakundeek beren plan estrategikoa onartu behar dute diru-laguntzak eman baino lehen.
- IVAPen plangintza estrategikoa zehaztea, diru-laguntzei dagokienetan, sustatze-jarduera horri dagokion dokumentu berezitu batean eta ez soilik erakunde osoaren plan estrategikoan. Plan honetan biltzen dira IVAPek, bere jarduera-arlo guztietan kudeatzen dituen diru-laguntza eta laguntza-lerro guztiak.
- IVAPen diru-laguntza arloko jardueren programa, helburu eta aurrekontu-adierazleak dokumentu bateratu batean zehaztea, jarduera horien kostuen berri emanez

4.- DIRU-LAGUNTZA ILDOAK

DPE honetan jasotako jardun-lerro estrategikoak dokumentu honen eranskinetan jaso dira:

- **I. ERANSKINA. ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU-LAGUNTZA ILDOAK: HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK**
- **II. ERANSKINA. ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU-LAGUNTZA ILDOAK: AURREKONTU-KONPROMISOAK ETA FINANTZAKETAREN EHUNEKOA FINANTZAKETA PUBLIKOA OROTARA HARTUTA**
- **III. ERANSKINA. ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU-LAGUNTZA ILDOAK: XEDE-SEKTOREAK, ETA DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA**

5.- GAUZATZEKO EPEAK

Oro har, urtebete izango da diru-laguntzak gauzatzeko, eta urte naturala izango da justifikaziorako hautatuko den aldia.

Hala eta guztiz ere, zenbait kasutan, IVAPen programa batzuek gauzatze-epe hori gainditzea eskatzen dute, programak laguntzen duen jardueraren –edo haren arlo materialaren– inguruabarrengatik. Horrelakoetan, bai diru-laguntza antolatzea ahalbidetzen duten aurrekontu-partidek, bai diru-laguntzen deialdiak osatzen dituzten arauak, espresuki jasotzen dituzte diru-laguntza gauzatzeko epea urtebete baino gehiagokoa izateko beharrezkoak diren zehaztapenak, eta esplizitatu egiten dute epe luzeago hori.

6.- EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK AURRETIK ORDAINTZEA

Diru-laguntzen Lege Orokorraren 34. artikulua honako hau xedatzen du: «*Kopuru batzuk aurreratuta ordaindu ahal izango dira orobat, hau da, justifikazioa aurkeztu baino lehen ere ordaindu ahal izango dira, finantzaketa hori beharrezkoa baldin bada diru-laguntzaren helburu diren jarduerak aurrera eramateko. Aukera hori eta bermeen erregimena diru-laguntza arautzen duen araudian aurreikusi beharko da espresuki*». Deialdietako oinarrietan, kopuru batzuk aurrez ordaintzeko aukera xedatu ahal izango da, diru-laguntza motaren finantzaketa-beharren, onuradunen, eta jarduketara publiko guztiak gidatu behar dituzten efikazia eta efizientzia printzipioen arabera.

7.- PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Plan hau urtero eguneratuko da. Eguneratzea ekitaldi bakoitzeko apirilaren 30a baino lehen egingo da, EAEko Aurrekontu Orokorren Legeetan ezarritakoa aintzat hartuta.

Plan hau aplikatuzetik eratorritako emaitzak IVAPek kontrolatu eta ebaluatuko ditu.

8.- AURREKO PLAN ESTRATEGIKOEN EBALUAZIOAREN EMAITZAK

				Aurre- ikusitakoa 2018	Egindakoa 2018	Aurre- ikusitakoa 2019	Egindakoa 2019	Aurre- ikusitakoa 2020	Egindakoa 2020	Aurre- ikusitakoa 2021	Egindakoa 2021	Aurre- ikusitakoa 2022
1. HE	1. ildoa	Euskal administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko laguntzak	1. adierazlea: prestakuntza-planen kopurua	47	45	47	40	33	28	33	28	30
			2. adierazlea: parte-hartzaileen kopurua	70.000	73.990	70.000	89.000	61.000	78.000	70.000	79.000	80.000
			3. adierazlea: programan parte hartzen duten erakundeen kopurua	175	169	175	145	160	102	100	79	100
2. HE	1. ildoa	Hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak egiten ari diren langileak ordezkatzeko diru-laguntzak (toki administrazioa)	diru-laguntzaren xede diren ordezkapenen kopurua	20	2	10	2	10	5	10	2	10

				Aurre- ikusitakoa 2018	Egindakoa 2018	Aurre- ikusitakoa 2019	Egindakoa 2019	Aurre- ikusitakoa 2020	Egindakoa 2020	Aurre- ikusitakoa 2021	Egindakoa 2021	Aurre- ikusitakoa 2022
3. HE	1. ildo	Jesús María Leizaola saria, Euskal Autonomiarekin zerikusia izanik edo hori aztertzeko eta sakontzeko balioa izanik hainbat azterte-ikuspuntutatik egindako monografia-ikerlanetarako saria	sari kopurua	2	1	2	0	2	1	2	2	2
	2. ildo	Administrazio publiko, zuzenbide publiko edo administrazio-zientziarekin lotutako gaiei buruzko ikerketa sustatzeko laguntzak.	deituko diren laguntzak	2	2	2	2	2	2	2	2	2
4. HE	1. ildo	Ikerketa juridikoak sustatzea eta zuzenbidean euskararen erabilera normalizatzea	urteko planean aurreikusten diren ekintzak	5	5	5	5	5	5	5	5	4

				Aurre- ikusitakoa 2018	Egindakoa 2018	Aurre- ikusitakoa 2019	Egindakoa 2019	Aurre- ikusitakoa 2020	Egindakoa 2020	Aurre- ikusitakoa 2021	Egindakoa 2021	Aurre- ikusitakoa 2022
5. HE	1. ildoa	EVETUK hirigintzari buruz antolatzen duen ikastaroaren matrikula ordaintzeko laguntzak	ikastaro modularretarako matrikula-bekak	5	3	5	5	5	2	5	1	5
	2. ildoa	Hirigintzari buruzko ikastaroko ikasleentzako laguntzak, erakunde publikoetan eta/edo enpresetan praktikak egiteko	praktiketako ikasleen kopurua	9	8	9	6	9	8	9	6	9

9.- DPE-A ONESTEA ETA ARGITARATZEA

IVAPek Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartuko du, IVAPen egitura eta eginkizunak arautzen dituen 133/2021 Dekretuak esleitzen dizkion eskumenekin bat eginik.

I. ERANSKINA

ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU-LAGUNTZA ILDOAK: HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

1. HELBURU ESTRATEGIKOA: Euskal administrazio publikoetako enplegatu publikoak prestatzeko programa berezituen ezarpena bultzatzea [helburu estrategikoa 2021-2024 PLAN ESTRATEGIKOAREN 4. LAN-LERROAREN barruan].

1. DIRU-LAGUNTZA ILDOA: euskal administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko laguntzak

ORGANOA: IVAP (erakunde autonomoa)

PROGRAMA: 1216 ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEAK HAUTATU ETA PRESTATZEA	2021	2022
HELBURUA: EUSKAL ADMINISTRAZIOETAKO LANGILEEN ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA	1.717.497	1.717.497
EKINTZA: euskal administrazio publikoetan prestakuntza-planak sustatzea.		
1. adierazlea: prestakuntza-planen kopurua	33	30
2. adierazlea: parte-hartzaileen kopurua	70.000	80.000
3. adierazlea: programan parte hartzen duten erakundeen kopurua	100	100

2. HELBURU ESTRATEGIKOA: Euskararen erabilera-planak ezartzeko beharrezkoak diren tresnak eskaintzea [helburu estrategikoa, 2021-2024 PLAN ESTRATEGIKOAREN 4. LAN-LERROAREN barruan]

DIRU-LAGUNTZA ILDOA: hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak egiten ari diren langileak ordezkatzeko diru-laguntzak (toki administrazioa)

ORGANOA: IVAP (erakunde autonomoa)

PROGRAMA: 4714 EUSKALDUNTZEA ETA HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOA	2021	2022
HELBURUA: EUSKAL ADMNISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEEN HIZKUNTZA-TREBAKUNTZA	25.000	25.000
EKINTZA: hizkuntza-trebetasuneko ikastaroak egiten ari diren udal langileak eta mankomunitateetako langileak ordezkatzeko diru-laguntzen deialdia.		
Adierazlea: diru-laguntzaren xede diren ordezkapenen kopurua	10	10

3. HELBURU ESTRATEGIKOA: IVAPen jardun-arlo guztietan ikerketa bultzatzea, eta ikerketa horien zabalkundea egitea [Helburu estrategikoa IVAP-EN 2021-2024 PLAN ESTRATEGIKOAREN 2. LAN-LERROAREN barruan].

1. DIRU-LAGUNTZA ILDOA: Jesús María Leizaola saria, Euskal Autonomiarekin zerikusia izanik edo hori aztertzeiko eta sakontzeiko balioa izanik hainbat aztertze-ikuspuntutatik egindako monografia-ikerlanetarako saria.

ORGANOA: IVAP (erakunde autonomoa)

PROGRAMA: 1216 ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEAK HAUTATU ETA PRESTATZEA	2021	2022
HELBURUA: ADMINISTRAZIO ETA ZUZENBIDE PUBLIKO ARLOKO IKERKETA SUSTATZEA, BEREZIKI GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA INTEGRALAREN AZTERKETA	30.000	30.000
EKINTZA: Jesús María Leizaola sariaren deialdia.		
Adierazlea: sari kopurua:	2	2

3. HELBURU ESTRATEGIKOA: IVAPen jardun-arlo guztietan ikerketa bultzatzea, eta ikerketa horien zabalkundea egitea [Helburu estrategikoa IVAP-EN 2021-2024 PLAN ESTRATEGIKOAREN 2. LAN-LERROAREN barruan].

2. DIRU-LAGUNTZA ILDOA: administrazio publiko, zuzenbide publiko edo administrazio-zientziarekin lotutako gaiei buruzko ikerketa sustatzeko laguntzak.

ORGANOA: IVAP (erakunde autonomoa)

PROGRAMA: 1216 ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEAK HAUTATU ETA PRESTATZEA	2021	2022
: ADMINISTRAZIO ETA ZUZENBIDE PUBLIKOARI BURUZKO IKERKETA SUSTATZEA, BEREZIKI GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA INTEGRALAREN AZTERKETA	40.000	40.000
EKINTZA: ikerketetarako laguntzen deialdia.		
Adierazlea: deituko diren laguntzak:	2	2

4. HELBURU ESTRATEGIKOA: itzulpengintzaren esparrutik abiatuta, euskararen erabileraren normalizazioan eragile aktibo izatea [Helburu estrategikoa IVAP-EN 2021-2024 PLAN ESTRATEGIKOAREN 2. LAN-LERROAREN barruan].

1. DIRU-LAGUNTZA ILDOA: ikerketa juridikoak sustatzea eta zuzenbidean euskararen erabilera normalizatzea.

ORGANOA: IVAP (erakunde autonomoa)

PROGRAMA 4714 EUSKALDUNTZEA ETA HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOA	2021	2022
<p>HELBURUA: esparru juridikoaren ikerketan eta euskararen erabileraren normalizazioan helburu komunak lortzeko lanean ari diren erakundeen artean ekintzen interkonexioa lortzea eta baterako jarduerak sustatzea.</p>	25.000	30.000
<p>EKINTZA: Aurrekontuetan dagoen Euskal Zuzenbidearen Akademiaren aldeko dirulaguntza izendunari dagokion kreditua erabiltzeko baimena eman, dirulaguntzaren esparruan gauzatuko diren ekintzak zehaztuz.</p> <p>Adierazlea: Aurrekontuan dagoen dirulaguntza izendunari dagokion kreditua zehazteko baimena ematen duen Ebazpenak aurreikusteen dituen ekintza kopurua:</p>	5	4

5. HELBURU ESTRATEGIKOA: lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloan lanean diharduten pertsonen prestakuntza eta birziklatze laguntza. [Helburu estrategikoa IVAP-EN 2021-2024 PLAN ESTRATEGIKOAREN 1. eta 5. LAN-LERROETAREN barruan].

1. DIRU-LAGUNTZA ILDOA: EVETUk hirigintzari buruz antolatzen duen ikastaroaren matrikula ordaintzeko laguntzak.

ORGANOA: Lurralde eta Hiri Ikasketarako Euskal Eskola, IVAPen mendekoa (80/1986 Dekretua)

PROGRAMA 1216 ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEAK HAUTATU ETA PRESTATZEA	2021	2022
HELBURUA: FUNTZIONARIOEI, PROFESIONALEI ETA GRADUATU ONDOKOEI HIRIGINTZAREN, LURRALDE-ANTOLAMENDUAREN ETA INGURUMENAREN ARLOKO PRESTAKUNTZA EMATEA	15.985	15.985
<p>EKINTZA: EVETUk hirigintzari buruz urtero antolatzen duen ikastaro osoaren matrikula ordaintzeko bekak iragartzea, publizitate-, lehia- eta objektibotasun-printzipioei jarraikiz.</p> <p>Adierazlea: ikastaro modularretarako matrikula-bekak:</p>	5	5

5. HELBURU ESTRATEGIKOA: lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloan lanean diharduten pertsonen prestakuntza eta birziklatze laguntza. [Helburu estrategikoa IVAP-EN 2021-2024 PLAN ESTRATEGIKOAREN 1. eta 5. LAN-LERROETAREN barruan].

2. DIRU-LAGUNTZA ILDOA: hirigintzari buruzko ikastaroko ikasleentzako laguntzak, erakunde publikoetan eta/edo enpreetan praktikak egiteko.

ORGANOA: Lurralde eta Hiri Ikasketarako Euskal Eskola, IVAPen mendekoa (80/1986 Dekretua)

PROGRAMA 1216 ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEAK HAUTATU ETA PRESTATZEA	2021	2022
HELBURUA: FUNTZIONARIOEI, PROFESIONALEI ETA GRADUATU ONDOKOEI HIRIGINTZAREN, LURRALDE-ANTOLAMENDUAREN ETA INGURUMENAREN ARLOKO PRESTAKUNTZA EMATEA	22.000	22.000
EKINTZA: hirigintzari buruzko ikastaroko ikasleei erakunde publikoetan eta/edo enpreetan praktikak egiteko eta praktikak egiten diren lekurainoko joan-etorrietarako diru-laguntzak ematea.		
Adierazlea: praktiketako ikasleen kopurua:	9	9

II. ERANSKINA

ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU-LAGUNTZA ILDOAK:

AURREKONTU-KONPROMISOAK ETA

FINANTZAKETAREN EHUNEKOA FINANTZAKETA PUBLIKOA OROTARA HARTUTA

1. HELBURU ESTRATEGIKOA: Euskal administrazio publikoetako enplegatu publikoak prestatzeko programa berezituaren ezarpena bultzatzea [helburu estrategikoa 2021-2024 PLAN ESTRATEGIKOAREN 4. LAN-LERROAREN barruan].

1. DIRU-LAGUNTZA ILDOA: euskal administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko laguntzak.

ORGANOA: IVAP (erakunde autonomoa)	2021		2022	
PROGRAMA: 1216 ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEAK HAUTATU ETA PRESTATZEA	Zenbatekoa €-tan	%	Zenbatekoa	%
4. kapitulua	1.717.497	%50	1.717.497	%50
7. kapitulua				
Guztira	1.717.497		1.717.497	

2. HELBURU ESTRATEGIKOA: Euskararen erabilera-planak ezartzeko beharrezkoak diren tresnak eskaintzea [helburu estrategikoa, 2021-2024 PLAN ESTRATEGIKOAREN 4. LAN-LERROAREN barruan]

DIRU-LAGUNTZA ILDOA: hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak egiten ari diren langileak ordezkatzeko diru-laguntzak (toki administrazioa)

ORGANOA: IVAP (erakunde autonomoa)

2021

2022

PROGRAMA: 4714 EUSKALDUNTZEA ETA HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOA	Zenbatekoa €-tan	%	Zenbatekoa	%
4. kapitulua	25.000 €	%100	25.000	%100
7. kapitulua				
Guztira	25.000 €		25.000	

3. HELBURU ESTRATEGIKOA: IVAPen jardun-arlo guztietan ikerketa bultzatzea, eta ikerketa horien zabalkundea egitea [Helburu estrategikoa IVAP-EN 2021-2024 PLAN ESTRATEGIKOAREN 2. LAN-LERROAREN barruan].

1. DIRU-LAGUNTZA ILDOA: Jesús María Leizaola saria, Euskal Autonomiarekin zerikusia izanik edo hori aztertze eta sakontzeko balioa izanik hainbat aztertze-ikuspuntutatik egindako monografia-ikerlanetarako saria.

ORGANOA: IVAP (erakunde autonomoa) 2021 2022

PROGRAMA: 1216 ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEAK HAUTATU ETA PRESTATZEA	Zenbatekoa €-tan	%	Zenbatekoa	%
4. kapitulua	30.000 €	%100	30.000 €	%100
7. kapitulua				
Guztira	30.000 €	%100	30.000 €	%100

3. HELBURU ESTRATEGIKOA: IVAPen jardun-arlo guztietan ikerketa bultzatzea, eta ikerketa horien zabalkundea egitea [Helburu estrategikoa IVAP-EN 2021-2024 PLAN ESTRATEGIKOAREN 2. LAN-LERROAREN barruan].

2. DIRU-LAGUNTZA ILDOA: administrazio publiko, zuzenbide publiko edo administrazio-zientziarekin lotutako gaietarako ikerketa sustatzeko laguntzak.

ORGANOA: IVAP (erakunde autonomoa)	2021		2022	
Programa: 1216 ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEAK HAUTATU ETA PRESTATZEA	Zenbatekoa €-tan	%	Zenbatekoa	%
4. kapitulua	40.000 €	% 100	40.000 €	% 100
7. kapitulua				
Guztira	40.000 €	% 100	40.000 €	% 100

4. HELBURU ESTRATEGIKOA: itzulpengintzaren esparrutik abiatuta, euskararen erabileraren normalizazioan eragile aktibo izatea [Helburu estrategikoa IVAP-EN 2021-2024 PLAN ESTRATEGIKOAREN 2. LAN-LERROAREN barruan].

DIRU-LAGUNTZA ILDOA: ikerketa juridikoak sustatzea eta zuzenbidean euskararen erabilera normalizatzea.

ORGANOA: IVAP (erakunde autonomoa)

2021

2022

PROGRAMA: 4714 EUSKALDUNTZEA ETA HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOA	Zenbatekoa €-tan	%	Zenbatekoa	%
4. kapitulua	25.000 €	% 100	30.000 €	% 100
7. kapitulua				
Guztira	25.000 €		30.000 €	

5. HELBURU ESTRATEGIKOA: lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloan lanean diharduten pertsonen prestakuntza eta birziklatze laguntza. [Helburu estrategikoa IVAP-EN 2021-2024 PLAN ESTRATEGIKOAREN 1. eta 5. LAN-LERROETAREN barruan].

1. DIRU-LAGUNTZA ILDOA: EVETUK hirigintzari buruz antolatzen duen ikastaroaren matrikula ordaintzeko laguntzak.

ORGANOA: Lurralde eta Hiri Ikasketarako Euskal Eskola, IVAPen mendekoa (80/1986 Dekretua)

	2021		2022	
PROGRAMA: 1216 ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEAK HAUTATU ETA PRESTATZEA	Zenbatekoa €-tan	%	Zenbatekoa	%
4. kapitulua	15.985	% 100	15.985	% 100
7. kapitulua				
Guztira	15.985	% 100	15.985	% 100

5. HELBURU ESTRATEGIKOA: lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloan lanean diharduten pertsonen prestakuntza eta birziklatze laguntza. [Helburu estrategikoa IVAP-EN 2021-2024 PLAN ESTRATEGIKOAREN 1. eta 5. LAN-LERROETAREN barruan].

2. DIRU-LAGUNTZA ILDOA: hirigintzari buruzko ikastaroko ikasleentzako laguntzak, erakunde publikoetan eta/edo enpreetan praktikak egiteko.

ORGANOA: Lurralde eta Hiri Ikasketarako Euskal Eskola, IVAPen mendekoa (80/1986 Dekretua)

	2021		2022	
PROGRAMA: 1216 ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEAK HAUTATU ETA PRESTATZEA	Zenbatekoa €-tan	%	Zenbatekoa	%
4. kapitulua	22.000 €	% 100	22.000	% 100
7. kapitulua				
Guztira	22.000 €	% 100	22.000	% 100

III. ERANSKINA

ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU-LAGUNTZA ILDOAK:

-XEDE-SEKTOREAK, ETA DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

1. HELBURU ESTRATEGIKOA: Euskal administrazio publikoetako enplegatu publikoak prestatzeko programa berezituen ezarpena bultzatzea [helburu estrategikoa 2021-2024 PLAN ESTRATEGIKOAREN 4. LAN-LERROAREN barruan].

1. DIRU-LAGUNTZA ILDOA: euskal administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko laguntzak.

ORGANOA: IVAP (erakunde autonomoa)

PROGRAMA: 1216 ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEAK HAUTATU ETA PRESTATZEA

PROGRAMA: 1216 ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEAK HAUTATU ETA PRESTATZEA	
<p>Xede-sektorea</p> <p>Administrazio publikoak</p>	<p>Sektoreak identifikatzea</p> <p>Alde batetik:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua zuzenbide pribatuko erakunde publikoa. • Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia, langileen prestakuntzan hari dagozkion planak eta programak sustatzeari dagokionez. • Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Saila, Justizia Administrazioko langileen prestakuntza planak eta programak sustatzeari dagokionez, haien kudeaketa sail horri badagokio. • Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, irakasleentzako planak eta programak sustatzeari dagokionez. <p>Beste aldetik:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Autonomia Erkidegoko tokiko administrazioak (udalak, mankomunitateak eta kuadrillak). • Euskal Autonomia Erkidegoko foru-administrazioak. • Euskal Herriko Unibertsitatea, administrazio eta zerbitzuetako langileen prestakuntzari dagokionez.

<p>Diru-laguntza emateko prozedura</p> <p>NORGEHIAGOKA EZ DEN LEHIA</p>	<p style="text-align: center;">Diru-laguntza emateko prozedura eta gauatzeko modua</p> <p>133/2021 Dekretuaren 22. artikulua ezartzen duenez, IVAPek, bere helburuak betetzeko, bekak edo bestelako laguntzak eman ahal izango ditu, eta sustapeneko beste neurri batzuk ere hartu ahal izango ditu.</p> <p>Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuarekin, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailarekin eta Hezkuntza Sailarekin prestakuntza-hitzarmenak sinatzen dira.</p> <p>Gainerako sektoreekin,, urtero, IVAPeko zuzendariaren ebazpen bidez, ebazpen horretan arautzen diren diru-laguntzak eskuratzeko deialdia egiten da. Deialdi horretan zenbait alderdi zehazten dira, hala nola:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Deitutako laguntzak finantzatzeko gehienezko aurrekontu-zuzkidura, eta berori banatzeko modua erakunde onuradun moten arabera. Tokiko administrazioei esleitutako kopurutik, IVAPi ordaindutako matrikulen parte bat finantzatzen laguntzeko zer kantitate gordeko den zehaztuko da. • Eskabideak aurkezteko modua eta epea. • Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa. • Laguntzak esleitzeko prozedura. Esleipen-printzipio eta -arauak. • Erakunde esleipendunen betebeharrak. • Laguntzak ordaintzea. • Laguntza justifikatzea.
--	--

2. HELBURU ESTRATEGIKOA: Euskararen erabilera-planak ezartzeko beharrezkoak diren tresnak eskaintzea [helburu estrategikoa, 2021-2024 PLAN ESTRATEGIKOAREN 4. LAN-LERROAREN barruan]

DIRU-LAGUNTZA ILDOA: hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak egiten ari diren langileak ordezkatzeko diru-laguntzak (toki administrazioa).

ORGANOA: IVAP (erakunde autonomoa).

PROGRAMA: 4714 EUSKALDUNTZEA ETA HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOA

Xede-sektorea	Sektoreak identifikatzea
EAEko udal administrazioak	<ul style="list-style-type: none"> • Udalerriak. • Udalerrien mankomunitateak.

<p>Diru-laguntza emateko prozedura</p> <p>NORGEHIAGOKA EZ DEN LEHIA</p>	<p style="text-align: center;">Diru-laguntza emateko prozedura eta gauzatzeko modua</p> <p>133/2021 Dekretuaren 22. artikulua ezartzen duenez, IVAPek, bere helburuak betetzeko, bekak edo bestelako laguntzak eman ahal izango ditu, eta sustapeneko beste neurri batzuk ere hartu ahal izango ditu.</p> <p>Horretan oinarriturik, urtero, IVAPeko zuzendariaren ebazpen bidez, ebazpen horretan arautzen diren diru-laguntzak eskuratzeko deialdia egiten da. Deialdi horretan zenbait alderdi zehazten dira, hala nola:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Deitutako laguntzak finantzatzeko gehienez erabiliko den aurrekontu-zuzkidura. • Onuradunak eta diru-laguntza eskuratu ahal izateko bete beharreko baldintzak. • Diru laguntzak jaso ditzaketen jarduerak. • Eskabideak aurkezteko modua eta epea. • Diru-laguntzak ordaintzeko irizpideak. • Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna. • Onuradunen betebeharrak.
--	--

3. HELBURU ESTRATEGIKOA: IVAPen jardun-arlo guztietan ikerketa bultzatzea, eta ikerketa horien zabalkundea egitea [Helburu estrategikoa IVAP-EN 2021-2024 PLAN ESTRATEGIKOAREN 2. LAN-LERROAREN barruan].

1. DIRU-LAGUNTZA ILDOA: Jesús María Leizaola saria, Euskal Autonomiarekin zerikusia izanik edo hori aztertze eta sakontze balioa izanik hainbat aztertze-ikuspuntutatik egindako monografia-ikerlanetarako saria.

ORGANOA: IVAP (erakunde autonomoa).

PROGRAMA: 1216 ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEAK HAUTATU ETA PRESTATZEA

Sektoreak identifikatzea	
Xede-sektorea	
Euskal autonomiaren esparruaren ikertzaileak	<p>Pertsona fisikoak edo propio sortutako lantaldeak, honako gai hauen inguruko ikerketa-lan monografiko eta argitaragabeen egileak direnak: autonomia-estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren konfigurazioa; Euskal Autonomia Erkidegoaren eraikuntza, errealitatea eta aurreikuspenak; haren gobernu-erakundearen konfigurazioa, maila politiko-administratibo bakoitzean; haren berezitasunak historia, kultura, bibliografia, zuzenbide, ekonomia, finantza, aurrekontu, fiskalitate, gizarte, estatistika arloan eta bestelakoetan; euskal administrazioen diseinua, antolamendua, funtzionamendua eta aurreikuspenak.</p>

<p>Diru-laguntza emateko prozedura</p> <p>NORGEHIAGOKA</p>	<p style="text-align: center;">Diru-laguntza emateko prozedura eta gauzatzeko modua</p> <p>133/2021 Dekretuaren 22. artikulua ezartzen duenez, IVAPek, bere helburuak betetzeko, bekak edo bestelako laguntzak eman ahal izango ditu, eta sustapeneko beste neurri batzuk ere hartu ahal izango ditu.</p> <p>Horretan oinarriturik, urtero, IVAPeko zuzendariaren ebazpen bidez, Jesús María Leizaola sariaren deialdia egiten da. Deialdi horretan zenbait alderdi zehazten dira, hala nola:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Accesitaren eta sariaren diru kopurua. • Hautagaiak bete behar dituzten baldintzak. • Eskabideak aurkezteko modua eta epea. • Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa. • Epaimahaiaren osaera. Funtzionamendua. • Saria emateko prozedura. • Saritutako pertsonen betebeharrak. • Saria ordaintzea.
---	--

3. HELBURU ESTRATEGIKOA: IVAPen jardun-arlo guztietan ikerketa bultzatzea, eta ikerketa horien zabalkundea egitea [Helburu estrategikoa IVAP-EN 2021-2024 PLAN ESTRATEGIKOAREN 2. LAN-LERROAREN barruan].

2. DIRU-LAGUNTZA ILDOA: administrazio publiko, zuzenbide publiko edo administrazio-zientziarekin lotutako gaietarako buruzko ikerketa sustatzeko laguntzak.

PROGRAMA: 1216 ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEAK HAUTATU ETA PRESTATZEA

Xede-sektorea	Sektoreak identifikatzea
Ikertzaileak	Ikertzaileak edo ikerketa-taldeak, administrazio publiko, zuzenbide publiko edo administrazio-zientziarekin lotutako gaien inguruan ikerketak egiteko, edozein delarik ere azterketarako ikuspuntua, euskal administrazio publikoen jardun-eremuarekin lotutako gaiak aintzat hartuta.

<p>Diru-laguntza emateko prozedura</p> <p>NORGEHIAGOKA</p>	<p>Diru-laguntza emateko prozedura eta gauatzeko modua</p> <ul style="list-style-type: none"> • Laguntzen diru-hornidura. • Hautagaiek bete behar dituzten baldintzak. • Eskabideak aurkezteko modua eta epea. • Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa. • Balorazio-batzordearen osaera. Funtzionamendua. • Laguntzak esleitzeko prozedura. Esleipen-printzipio eta -arauak. • Erakunde esleipendunen betebeharrak. • Laguntzak ordaintzea. • Laguntza justifikatzea.
---	--

4. HELBURU ESTRATEGIKOA: itzulpengintzaren esparrutik abiatuta, euskararen erabileraren normalizazioan eragile aktibo izatea [Helburu estrategikoa IVAP-EN 2021-2024 PLAN ESTRATEGIKOAREN 2. LAN-LERROAREN barruan].

1. DIRU-LAGUNTZA ILDOA: ikerketa juridikoak sustatzea eta zuzenbidean euskararen erabilera normalizatzea.

ORGANOA: IVAP (erakunde autonomoa).

PROGRAMA: 4714 EUSKALDUNTZEA ETA HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOA

Xede-sektorea	Sektoreak identifikatzea
Zuzenbidearen Euskal Akademia.	<ul style="list-style-type: none"> Zuzenbidearen Euskal Akademia.
Emateko prozedurak ESLEIPEN ZUZENA (diru-laguntza izenduna)	<p style="text-align: center;">Diru-laguntza emateko prozedura eta gauatzeko modua</p> <p>Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorretan izendunen artean aurreikusitako diru-laguntza bat da. Aurrekontu horien gastuen egoera-orrian bai aurrekontu-hornidura, bai laguntzen onuradunak jasotzen dira.</p> <p>Diru-laguntza honen xedea, IVAPeko aurrekontuan dagoen diru-laguntza izendunari dagokion kreditua zehazterko baimena ematen duen Ebazpenean garatzen da. Aurreikusten diren ekintzak azterlan juridikoak sustapenaren eta euskararen erabilera normalizatzearen arloetan ditugu.</p> <p>Aipatutako ebazpenak arautzen arautzen ditu diru-laguntzen ordainketaren banaketa, erakunde onuraduraren betebeharrak eta diru-laguntzaren diru-itzultzea bideratzeko aukera, aurreikusitako ekintzak betetzen ez diren kasurako.</p>

5. HELBURU ESTRATEGIKOA: lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloan lanean diharduten pertsonen prestakuntza eta birziklatze laguntza. [Helburu estrategikoa IVAP-EN 2021-2024 PLAN ESTRATEGIKOAREN 1. eta 5. LAN-LERROETAREN barruan].

1. DIRU-LAGUNTZA ILDOA: EVETUk hirigintzari buruz antolatzen duen ikastaroaren matrikula ordaintzeko laguntzak.

ORGANOA: Lurralde eta Hiri Ikasketarako Euskal Eskola, IVAPen mendekoa (80/1986 Dekretua)

PROGRAMA: 1216 ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEAK HAUTATU ETA PRESTATZEA

	Sektoreak identifikatzea
<p>Xede-sektorea</p> <p>Baliabide ekonomiko nahikorik izan ez eta hirigintzari buruzko ikastaroa egin nahi duten pertsonak.</p>	<p>Izendatutako politika-kargudunak, zuzendariak, A taldeko enplegatu publikoak, hirigintzarekin eta/edo lurralde antolamenduarekin edo ingurumenarekin lotutako B taldeko enplegatu publikoak, bai eta hirigintzaren, lurralde-antolamenduaren edo ingurumenaren arloan lanean diharduten profesional, graduatu, lizentziadun, ingeniari eta arkitektoak ere.</p>

<p>Emateko prozedurak</p> <p>NORGEHIAGOKA</p>	<p style="text-align: center;">Diru-laguntza emateko prozedura eta gauzatzeko modua</p> <p>EVETUren osaera, funtzionamendu eta antolaketari buruzko 80/1986 Dekretuaren 3. artikulua xedatzen duenez, EVETUk, lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren alorretan prestakuntza eta hobekuntza eskaintzeko helburua betetzeko, bekak, laguntzak eta bestelako sustapen-neurrietarako deialdiak egin eta laguntzok eman egin ahal izango ditu.</p> <p>Horretan oinarriturik, urtero, IVAPeko zuzendariaren ebazpen bidez, hirigintzari buruzko ikastarorako deialdia egiten da; deialdi horretan, matrikula-bekak eskuratzeko oinarriak jasotzen dira, eta honako puntu hauek zehazten dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gehienez eman daitekeen beka kopurua eta haren guztizko diru-hornidura. • Beken onuraduna izateko betebeharrak. • Eskabideak aurkezteko modua eta epea, eta aurkeztu beharreko dokumentazioa. • Diru-laguntzaren kudeaketa-organoa eta emateko prozedura. • Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.
---	---

5. HELBURU ESTRATEGIKOA: lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloan lanean diharduten pertsonen prestakuntza eta birziklatze laguntza. [Helburu estrategikoa IVAP-EN 2021-2024 PLAN ESTRATEGIKOAREN 1. eta 5. LAN-LERROETAREN barruan].

2. DIRU-LAGUNTZA ILDOA: hirigintzari buruzko ikastaroko ikasleentzako laguntzak, erakunde publikoetan eta/edo enpreetan praktikak egiteko.

ORGANOA: Lurralde eta Hiri Ikasketarako Euskal Eskola, IVAPen mendekoa (80/1986 Dekretua).

PROGRAMA: 1216 ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEAK HAUTATU ETA PRESTATZEA

Xede-sektorea	Sektoreak identifikatzea
Hirigintzari buruzko ikastaroa egin duten ikasleak	Hirigintzari buruzko ikastaroa eginda, erakunde eta/edo enpreetan praktikak egitea aukeratu duten ikasleak.

<p>Diru-laguntza emateko prozedura</p> <p>NORGEHIAGOKA EZ DEN LEHIA</p>	<p style="text-align: center;">Diru-laguntza emateko prozedura eta gauzatzeko modua</p> <p>EVETUren osaera, funtzionamendu eta antolaketari buruzko 80/1986 Dekretuak 3. artikuluan xedatzen du lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloetako prestakuntza eta hobekuntza direla EVETUren helburuak.</p> <p>Horretan oinarriturik, urtero, IVAPeko zuzendariaren ebazpen bidez, hirigintzari buruzko ikastarorako deialdia egiten da (ikastaroa aukerako praktika-aldi batekin osa daiteke); deialdi horretan, honako puntu hauek zehazten dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aukerako praktiken helburuak eta onuradunak. • Praktiketako ikasleak har ditzaketen erakundeak edo enpresak. • Praktiken zereginak eta egitura. • Baliabide ekonomikoak eta praktiken ordainketa. • Eskabideak aurkezteko modua eta epea, eta aurkeztu beharreko dokumentazioa. • Diru-laguntzaren kudeaketa-organoa eta emateko prozedura. • Onuradunen betebeharrak eta beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.
---	---